**MAITE ARISTEGI**

………..

Herri osoaren afera
Euskal Presoak etxera
Ibaetako aterpera
gose greba egitera
hantxe elkar ezagutu
bilera eta kantu
nolabait lilulatu,
betiko adiskidetu

Harrezkeroko bidaian
beti bazegoen gaia
militantziaren sustraia
ipar ta hegoko zelaia
mailu zubi higikaia
zazpiak bat egin nahia
hortan saia eta saia
Gaindegia atalaia

Giza eskubideen alde
zenbat lan ta debalde
aukera guztien zale
ta faximoari dale
egunero iraultzaile
mezenas laguntzaile
jakintza oro bale
talentu suspertzaile

Omen ziñan peatoia
herrigintzaren peoia
ta zure luma arkoia
beti hobetu nahi gidoia
burutsu zenbat ideia
zurekin zan maratoia
astinduz behe ta goia
nazio ikuspegiaz
disenaiu nahi paisaia
zure kezka larria

Elikatze iturria
ta hortxe nekazaria
laborantza herrikoia
zutabe ta oinarria
Indenpendetista sutxu
herriagatik apustu
ene zenbat kausa justu
zu defenditzen jo ta su

Lurra eta kultura
herri baten joskura
galtzearen haustura
etengabeko ardura
subirautzan onura

Hippi tan iñoiz makarra
kaballero lapurtarra
borrokan ñoñostiarra
umorea irriparra

Gatza eta almibarra
dotorezia ta garra
emakumeentzat indarra
euskaldunentzat iparra
Illunpe hontan izarra
zure espezian bakarra

Zure aurresku segidilla
guretzat ez zaude illa
izan zara marabilla
utzi diguzu ta pilla
hainbat gauzetan abilla
ta beti justizi billa

Zure ondarea sakon
Pitagoras ta Platon
segi on
emon ta emon
denok mila esker on
Matte zattugu Antton